

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

**120/2019 Foru Agindua, apirilaren 25ekoa, zeinaren bidez baimentzen baita María Pilar Marteles Ripa andrearen behin-behineko izendapena egitea Lezako Udaleko idazkari lanpostua bete dezan 2019ko apirilaren 28an, hauteskunde orokorren eguna dela-eta**

Lezako Udalak jakinarazi du lanpostua egun hutsik dagoenez behin-behineko izendapena behar duela 2019ko apirilaren 28rako, Hauteskunde Orokorren egunerako. Gainera, jakinarazi du egun horretarako aurreikusita duela aparteko bilkura bat egitea hauteskunde mahaia osatzeko maiatzaren 26an egingo diren udal, autonomia eta Europako Parlamenturako hauteskundeetan.

Hori dela-eta, proposatu du egun horretarako María Pilar Marteles Ripa funtzionarioaren behin-behineko izendapena egitea, zeinak administrari laguntzaile lanpostua betetzen baitu udal horretan.

Estaturako gaikuntza duten toki administrazioi funtzionarioen araubide juridikoa arautzen duen martxoaren 16ko 128/2018 Errege Dekretuak 52 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz.

Kontuan hartu da Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legeak 25. artikuluan xedatutakoa –Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea aldatzen du 27/2013 Lege horrek, 92.bis artikulua berria sartuta–, non finkatzen baita toki korporazioetan behin-behineko langileak izendatzeko aginpidetza eremua.

128/2018 Errege Dekretuaren hirugarren xedapen gehigarrian arautua betez, eta Arabako Foru Aldundiaren Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko 52/1992 Foru Arauaren 40. artikuluan jasotzen diren eskuduntzen ondorioz, eta nire eskumenekoak diren ahalak baliatuz,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. María Pilar Marteles Ripa andrearen behin-behineko izendapena egitea Lezako Udaleko idazkari lanpostuari dagozkion eginkizunak bete ditzan 2019ko apirilaren 28an, Hauteskunde Orokorren egunean.

Bigarrena. Izendapenak aurreko idatz zatian adierazitako egunerako soilik izango du indarra.

Hirugarrena. Foru agindu hau jakinaraztea interesa dutenei, Lezako Udalari eta Eusko Jaur-laritzako Toki Administrazioekiko Harremanetarako eta Administrazio Erregistroetako Zuzendaritzari, eta agintzea ALHAOn argitara dadila.

Gasteiz, 2019ko apirilaren 25a

*Diputatu nagusiordea eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Oreekaren Saileko foru diputatua*  
**MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO**

*Lurralde Oreekaren zuzendaria*  
**IÑAKI GUILLERNA SAENZ**